

NONDIK GATOA? / NORA GOAZ?

Auteskunde-girora sartzen gara eta egokiak doguz idazpuru lez ezarri doguzan itaun bi oneik.

Euskalerriak aldi baten askatasun osoa eukan, eskualde bakoitxak bere buruaren jabetasuna eta bere lege zarrak eukazala. Baiña eskubide orreik urteen joanean kentzen joan jakuzan inguruko laterri aundiagoak eta azkenean lege zarra edo foruak gelditu jakuzan. Oneik be kendu egin euskuezan eta gure erria menperatuta eukitea

nai eben. Ez eben lortu ori, zorionez Arana'tar Sabin agertu zalako eta onek aldarrikatu eban gure aberria Euzkadi dala. Geroago langilleen munduari be begiratu jakon eta Ela sortu zan.

Atzean geratu ziran foruzale agertzen ziran eta aldakuntzarik nai ez eben karlistak españatarrakaz bat eginda. Giro orretatik sortuak dira Iturgaitz, Mayor Oreja ta ola-koak.

Di

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 3.000 pezeta. Ez dozc ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

Beste alde batetik jatorku lanaren arazoa, ez baserriko lanarena, langintza edo industriarena baiño. Guk ba-geunkan industria gure oletan, industria indartsua gaiñera. Cure oleak eta errementariak Europa guztira saltzen eben, baiña zoritxarrez olen lana amaitu eta meakiak saltzeko sasoia etorri zan. Meakiak aterateko orra Somorrostro-ingurura, gure Enkarterrira, erbesteko langille asko etorri eta langille oneik egoera oso txarrean bizi ziran. Euren etxeetan baiño obeto irabazten, gitxi izan arren. Or sortu zan langilleen arazoa, or agertu zan Perezagua ospetsua, gero Pasionaria, eta abar. Langille orreik ez ziran euskaldundu, baiña curen sindikatoa, UGT, sortu eben. Or daukaguz gaur euskaldun ez diran alderdia (PSOE) eta sindikatoa (UGT). Perezagua Prieto'k Alboratu eban. Onek 20 urtean Burruka egin eban, beti Españatar ez.

Irugarren sail bat aitatu bear dogu emen. Bilbao'tarrena. Bilbao beti izan da Bizkaia'ren arerio: Bizkaia karlostarra zanean, Bilbao liberala zan. Gaiñera or bizi izan dira beti, Madrid'era begira egon diran esku-zuriak. Bilbao'k salerozketarako trebetasuna eukan eta orretarako saltzen eban gure erria, gogoratu aduanak portu legorretatik itxas-ertzerak ekarte. Baiña jauntxu orreik etoi izan dira. Aspaldion isillago dagoz eta Bilbao'n abertzale asko dagoz, baiña Euskerazaleak amets egin dauan Bilbao euskalduntzea ez da ain erreza.

Or daukaguz ba, gaurko egoerearen iru iturriak, batez be bi burruka bizian dagozenak. Alde batetik ELA'gaz batera datozen abertzaleak eta bestetik UGT'gaz batera doazen Sozialistak. Erria eta langilleak alkarregaz burrukan? Sarritan jazo dan gauzea ori, baiña erri-zaletasunak beti agertu dau indar aundiagoa langille-zaletasunak baiño, epe laburrean ez ba'da luzean.

Gure erriaren itxaropena abertzaleatasunean dago, Euskalerri osoa (zazpiak bat) askatzea aldarrikatzen dauan abertzaleatasunean. Urratsak asko izango dira elburu orretara eltzeko, baiña elburua iñoz ukatu barik.

Eta etorkiai begira zerbait: Euskalerriaren barruan beti artu doguz etorkiak, geiegi izan diranean be bai, meategiko arazoan ikusi dogun lez eta Riestra'ren aldian Bilbao'n jazoten zan lez, baiña ezin itzi esan barik etorki guztiai: Guk zuek onartzen zaituegu, baiña zuek be onartu egizue emen erri bat dagoala eta lagundu erri ori aurrera eroaten. Ez dot esan nai guztiok alderdi politiku abertzale baten sartu bear dozuela, baiña bai, zuek eta guk, benetan maitatu bear dogula aberria, benetan abertzaleak izan bear dogula. Ori guztion onerako izango da. Eta gure erria onartu nai ez dabenak, zer? Izan dagiogun alkarrari bear dan itzaltasuna. Erriaren alde ez doana beti izango da kolonia baten antzekoa.

OLAZAR eta URIBE'tar Martin'ek